



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSA OHARRA

## Enkarterrietako Museoak, familia osoari zuzendutako hainbat jarduera didaktiko antolatu ditu Gabonetan

Abellanedan, 2013ko abenduaren 18an.

"ZorionEM eta enkarterriON" izenburuagaz, Enkarterrietako Museoak (Abellaneda) familia osoak ondo pasau daian pentsautako Gabonetako hainbat jarduera antolatu ditu. Abellanedako Batzar Etxe zaharrean dagoan kulturguneak oso "menu" berezia prestau dau jai honeetarako, kultura eta dibertsinoa alkartuz. Bertara hurreratzen diran pertsonak, San Mames zaharraren 100 urteak dirala eta talde zuri gorria omentzeko antolatutako "Enkarterri, ehun urte Athletic-ekin" erakusketea bisitetako aukerea izango dabe. Baina, ganera, beste alternatiba didaktiko batzuk be badagoz museo barruan, Historiaurreari eta Erdi Aroari buruzko umeentzako tailerrak, Bizkaiko ikasleen programazino pedagogikoan ohikoak diranak.

### HISTORIAURREARI BURUZKO TAILERRA

Jarduera hori familiengana hurbiltzeko eta historiaurreko sekretuak modu esperimentalean eta atseginean ezagutzeko dago pentsauta. Pigmentu naturala, ardaia, pirita, suharria edo errekarriak, beste material batzuen artean, izango dira umeek, museoko begiraleen laguntzagaz, orain milaka urteko bizimoduan murgiltzeko erabiliko dituen elementuak. Bertara, 8 eta 12 urte arteko umeak joan ahal izango dira, helduek lagunduta.

### ERDI AROARI BURUZKO JARDUERIA FAMILIENTZAT

Erdi Aroa ezagutu gura izan ezkerro, 6 eta 12 urte arteko bisitariak eleiza erromaniko bat eregi ahal izango dabe euren eskuakaz, idazketa gotikoaren klabeak ezagutu ahal izango ditue, puntu erdiko arku bat egingo dabe, edo Erdi Aroko armadura bat eroatearen sentsazinoa sentidu ahal izango dabe.

Jarduera bi horreek abenduaren 23an, 26an, 27an eta 30ean eta urtarrilaren 2an eta 3an egin ahal izango dira.

### ATHLETIC TALDEARI BURUZKO ERAKUSKETEAK IKUSTEKO AZKENENGO EGUNAK

Tailerrakaz batera, "Enkarterri, ehun urte Athletic-ekin" erakusketea be bisitatu ahal izango da. Bertan, Athletic taldearen Enkarterrietako jatorria eta eskualde horretatik eta itsasadarraren ezkeraldetik eta Meategi ingurutik sortutako jokalaria kopuru handia zehazten dira: Gorostiza, Bata, Venancio, Lezama, Aranguren, Uriarte, Marro, Clemente, Dani, Sarabia, Goikoetxea, Urtubi, Guerrero... euren golak, geldituak, anekdotak...! Erakusketea urtarrilaren 12era arte egongo da zabalik.

Informazinoa eta erreserbak: 94 650 44 88 edo 94 610 4815 eta [www.enkarterrimuseoa.net](http://www.enkarterrimuseoa.net) web gunea. Jarduera guztiak doakoak dira.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA

## Navidades divertidas para toda la familia en el Museo de Las Encartaciones

Abellaneda, a 18 de diciembre de 2013.

Bajo el título "ZorionEM eta enkarterriON", el Museo de Las Encartaciones ha organizado una serie de actividades navideñas pensadas para pasar un buen rato en familia. El centro cultural situado en la antigua Casa de Juntas de Abellaneda ha preparado un "menú" muy especial para estas fiestas en donde la cultura ligará con la diversión. Las personas que se animen tendrán la oportunidad de visitar la exposición "Cien años de las Encartaciones con el Athletic", un homenaje al club rojiblanco coincidiendo con los 100 años del viejo San Mames. Además, existen otras alternativas didácticas en el interior del museo como son los talleres infantiles sobre la Prehistoria y la Edad Media, habituales de la programación pedagógica de escolares de toda Bizkaia.

### TALLER SOBRE PREHISTORIA

Esta actividad está pensada para conocer, de una manera experimental y amena, los secretos de la prehistoria. Pigmento natural, yesca, pirita, sílex o cantos rodados, entre otros materiales, serán los elementos que utilicen los niños con la ayuda de los monitores del museo para sumergirse en el modo de vida de hace miles de años. A ella podrán acudir niños y niñas de edades comprendidas entre los 8 y los 12 años siempre que vayan acompañados por adultos.

### ACTIVIDAD PARA FAMILIAS SOBRE LA EDAD MEDIA

Si lo que interesa es la Edad Media, los asistentes (entre los 6 y los 12 años), podrán construir con sus propias manos una iglesia románica, conocer las claves de la escritura gótica, fabricar un arco de medio punto o experimentar la sensación de portar una armadura medieval.

Estas dos actividades se desarrollarán los días 23, 26, 27 y 30 de Diciembre, y 2 y 3 de Enero.

### ÚLTIMOS DÍAS PARA VER LA EXPOSICIÓN DEL ATHLETIC

Los talleres podrán combinarse con la visita a la exposición "Cien años de Las Encartaciones con el Athletic", donde se detallan los orígenes encartados del Athletic y la enorme cantidad de jugadores que han salido de esta comarca y del entorno de la Margen Izquierda y Zona Minera: Gorostiza, Bata, Venancio, Lezama, Aranguren, Uriarte, Marro, Clemente, Dani, Sarabia, Goikoetxea, Urtubi, Guerrero... ¡sus goles, sus paradas, sus anécdotas...! La muestra permanecerá abierta hasta el 12 de enero.

Información y reservas: 94 650 44 88 ó 94 610 4815 y [www.enkarterrimuseoa.net](http://www.enkarterrimuseoa.net) . Todas las actividades son gratuitas.